

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko apirilaren 4a. IX. urtea. 2.571. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Aiztondo Gutun Lehiaketara hilaren 26ra arte bidali daitezke lanak

Gutun bidezko literatur generoaren aberastasuna berreskuratzea eta sentimenduak komunikatzea da asmoa ◊ 4

## Iker Karrerak emango dio hasiera Amezketako Mendi Asteari

Buruntzunzin elkarteak antolatu du eta hilaren 8tik 14ra bitartean egingo dituzte jarduerak ◊ 5

## Herrira-k Bilboko manifestaziorako deia egin du ◊ 5



→ **Gorputz adierazpena landuz.** Aste Santuko oporraldia dela eta, Topic zentroak txotxongiloak sortzeko tailerrak antolatu ditu; hamasei neska-mutil ari dira Marote txotxongiloak egin eta hauei bizia ematen. Teknika bereziaz mugitzen dira panpin hauek, eta gorputz adierazpena ere lantzen dute haurrek. ◊ 2

## Tourette sindromea ezagutarazten ari da Afesta elkarteak

Tolosan du egoitza elkarteak eta elkartasun bazkaria antolatu du Usabal kiroldegian hilaren 13rako; gaixotasun ez ohikotzat hartzen da Tourette sindromea ◊ 6

## Huyck Wangner-en eta langileen arteko adostasuna, urrun

Enpresak bigarren Enplegu Erregulazio Espedientea aurkeztu zuenetik bigarren bilera egin zuten atzo; enpresak ez duela akordiorako «borondaterik» adierazi dute langileek ◊ 7

## Tolosaldeko lau lantegiri konpetentziaren aurkako ekintzak egotzi dizkiete

Konpetentziaren Batzordeak papergintzako beste 11 lantegirekin batera 44 milioi euroko isuna ezarri die ◊ 7

## Harpide egiteak saria du

Egin HITZAren harpidedun apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte, eta jaso

eta

Harpidedun guztien artean

Areta Etxea nekazaturismoan  
bi pertsonentzako  
asteburu baterako  
egonaldia  
ZOZKATUKO DUGU



Basoa banaketak  
OPARI eskainitako 3 ardo botila

Harremanetarako:  
902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)

hitza info



Marote txotxongiloak egingo dituzte taller honetan, eta norberak egindako panpinaren nortasuna asmatzen aritu ziren atzo, neska-mutilak. LURKIZU

# Txotxongiloei gorputza eta bizia emateko txokoa

Topic zentroak txotxongiloak sortzeko tailerrak antolatu ditu, beste urte betaz, Aste Santuko oporraldia dela eta

Marote txotxongiloak egiten eta gorputz adierazpena lantzen ari dira



Teknika berezia behar da marote txotxongiloak mugitzeko, norberaren eskuak eta hankak erabiliaz. LURKIZU

## Itzea Urkizu Tolosa

Urteroko moduan, haur eta gazte-txoei begirako tailerrak antolatu ditu, Pazko Astean, Tolosako Topic zentroak; aurten, marote motako txotxongiloei eskaini diete tailerra, eta panpinak sortzeaz gain, hauei bizia emateko behar-beharrezkoa den gorputz adieraz-

pena ere lantzen ari dira, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak.

Tailerreko arduradunak azaldu duenez, «teknika berezi batekin mugitzen dira txotxongilo hauek, izan ere, panpina bera esku batekin heltzen da, baina gainerako mugimendu guztiatarako norbere gorputz atalak erabili behar dira: bakoitzaren eskua

txotxongiloaren eskua ere bada, eta gauza bera gertatzen da hankekin ere».

Pasa den asteartean hasi zen tailerra, eta 16 neska-mutil inguru ari dira saioetara joaten. Txotxongiloak sortzeaz harago, ordea, panpinen nortasuna asmatzen eta txotxongiloak mugitzeko gorputzarekin adierazten ere jardungo dira: «Pertsonaia nolakoa izango den zehaztu eta ondoren txotxongiloa egin beharrean, beti beste puntu batetik hasten gara,

tailerreko saioetan barrena gertatzen diren gauzekin jolas egiteko», azaldu du arduradunetako batek.

Modu honetara, parte hartzaile bakoitza bere txotxongiloaren izaera definitzen aritu zen atzo, eta besteak beste, izena, bizilekua, afizioak eta antzekoak esleitu zizkieten euren sortutako marote txotxongiloei. Gaur, pertsonaien aurkezpena egingo dute, pixkana istorio txikiak sortzeko.

estatuatuarra sortu du tallerrean: «Txotxongiloari gorputza egin diogu gaur, pertxa batekin. Orain, gure txotxongiloari buruzko gauza idazten ari gara».

Uxue arrebak, berriz, txotxongiloaren aurpegiera nabarmendu nahi izan du: «Haragi koloreko aurpegia egin diot, egurraren antzeko kartoi oso gogor batekin».

Bihar izango da ikastaroaren azken eguna, eta asko Topic zentrorra itzuliko direla diote. Maddik, esaterako, 9 urte ditu, eta hirugarrenez parte hartu du Topic-eko tallerretako batean: «Hirugarren aldia da, eta asko gustatzen zait hona etortzea».

Aipatzekoa da, gainera, txotxongiloekin belaunaldien arteko harremana lantzeko tailerra atzeratu egin dutela; Pazko aste-rako aurreikusitako zuten arren, behar baino jende gutxiagok eman du izena, eta beranduago ospatuko dute.

● tolosa@hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## ↓ Iragarki laburrak

### LANA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesatuak deitu: 943 69 6882 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara deituz.

### Irudimenak ez du mugarik

6 urtetik 12ra, parte hartzaile batetik bestera, kolore, forma eta material askotako txotxongiloak sortu dituzte tallerreko neska-mutilak; panpin bakoitzaren izaera zehazterakoan ere, irudimenak ez du mugarik eurentzat.

Lagun berriak egiteko txokoa izan daiteke tailerra, baina bada arrea eta lagunekin joaten denik ere, Irurako Beñaten moduan. 7 urte ditu, eta txotxongilo

Tolosako Indoor Kartinga bere zalegoa handiagotzen ari da. Gero eta jende gehiago elkartzen da Artzabaltzako zirkuitu estalian, modan omen dagoen kirola praktikatzeko. Lagunarteak hartzen du nagusitasuna

# Abiaduraren erresuma estalia

**Julen Telleria** Tolosa

**B**akarka, binaka, zein taldean. Edozein modutara disfruta daiteke Tolosako Indoor Kartingak eskaintzen dituen aukerez. Abiadura, adrenalina, erreflexuak, eta emozioa, lau gurgipen gaineko koktel dibertigarrian nahasten dira, probatzen duten guztien gozagarri. Gidari trebea izan beharrik gabe, ondo pasatzeko gogoia eta abiadura gosea duen edonork, zabalik dauzka ateak, Artzabaltzako kokatutako zirkuituan.

Lehendabiziko bistadizoan, inork gutxik imajinatuko luke pabiloi horren barruan karting zirkuitu bat dagoenik, baina barrura sartu eta inpresio ikaragarria egiten du zutabe artean eraikitako bihurtune laberintoa ikusteko. Bada, inpresio hori areagotu egiten da, kart batera igo eta bihurtune horien artean gaitzerakoan. Horrexegatik dio Haritz Goikoetxea, kartingeko arduradunak, gero eta jende gehiago erakartzen duela euren zirkuituak, «behin probatu ondoren, harrapatu» egiten omen baitu kartingaren munduak.

2010eko maiatzean zabaldu zuten estreinakoz bere ateak Tolosako Indoor Kartingak, eta orduztik hona, asko zabaldu eta hobetu du bere eskaintza. 200 zentimetro kubikoko kart-ak dauzkate, nahikoa eta soberan, bertako bihurtuneak kontrolatu ahal izateko. 14 urtetik gorako edozein ibil daiteke hauetariko auto batean, gidabaimena eduki edo ez. Halaber, txikienean ere badute guzti honetaz gozatzeko aukera, izan ere, bi lagunentzat egokitutako kart-ak dauzkate erabilgarri, heldu batek gidatu, eta alboan haur zein pertsona ezinduek karting esperientzia lehendabiziko pertsonan bizi dezaten.

Prezio aldetik ere, edozein pattrikara moldatzeko moduko salneurriak eskaintzen dituzte. Goikoetxeak jakinarazi duenez, euren politika «ez da jendeari dirua ateratzea», eta nahiago dute prezio merkeagoak jarri eta jende gehiago animatzea. Astelehene ostegunera bitarte, hamar minutuko txanda batek hamar euro balio du, eta bi plazako autoan 15. Asteburuetan, prezioak apur bat gora egiten du, eta ostiraletik igandera, 10 minutuko txandak 13 euro eta bi plazakoan 18 euro balio ditu.

Baina karting kontuetan arrakasta gehien lagunarteko lasterketek dutenez, txapelketa bereziak ere antolatzen dituzte, prezio



Artzabaltzako pabiloietan dago kokatua Tolosako Indoor Kartinga. **JULEN TELLERIA**

bereziekin. Ostiral gauean, banakako lehiak antolatzen dituzte, eta larunbatetan, aldiz, taldekoak, erresistentziakoak. Igande goizetan, bestalde, haurrentzat gidatzeko ikastaroak ematen dituzte. Goikoetxearen hitzetan, «honetako ekimenek gero eta jende gehiago erakartzen dute, eta probatzen duten guztiak oso sentzazio onarekin ateratzen dira».

Baina, motorraren burrunbaz gozatzeko gain, Artzabaltzako zirkuitua ongi prestatuta dago goiz

**Gidari trebea izan beharrik gabe, ondo pasatzeko gogoia nahikoa da**

**Edozein patrikara moldatzeko moduko salneurriak eskaintzen dituzte**

**Txapelketa desberdinez gain, egun guztiko ospakizunak ere antolatzen dituzte**

edo arratsalde eder bat pasatzeko, izan ere, taberna txiki bat ere badaukate jendeari itxaronaldiak xamurtzeko. Futbolinarekin edota billarrarekin tartekatutako kart-en joan etorriak.

**Ospakizunak bertan**

Jendeari eskariei jaramon eginez, Tolosako Indoor Kartingean egun guztiko ospakizunak ere antolatzen dituzte, hala, urtebete-



200 zentimetro kubikoko kart autoak. **J. TELLERIA**



Abiadura handia lor daiteke bihurtune artean. **J. TELLERIA**

tze, ezkon aurreko festa, enpresa bazkari edota lagunarteko edozein ekimen gurgil gainean ospatu ahal izateko. Kartingean mota guztietako lasterketak egiteaz gain, paintball partida bat jokatu eta sagardotegi edota jatetxeren batera eramaten dituzte bezeroak bazkaltzera, autobus zerbitzua barne. «Egun borobila pasatzeko aukera, beste ezertaz kezkatu beharrik izan gabe», azaldu du Goikoetxeak.

**Bazkide egiteko aukera**

Karting zirkuituari behar bezalako etekina atera ahal izateko, bazkide egiteko aukera ere eskaintzen dute bertan. Urtean 50 euroko kuota ren truke, Tolosako Indoor Kartingean beherapenak izateaz gain, motor munduan bestelako eskaintza bereziak ere izango ditu bazkideak. Hala nola, Gasteizko eta Logroñoko karting zirkuituetan 5 euroren truke egin ahal izango da txanda bakoitza, eta norbere autoaren mantenturako ere «prezio ezin hobeak» eskainiko zaizkio bezeroari, Goikoetxeak esan duenez. Informazio gehiagorako, zabalik dute euren webgunea, [www.tolosaindoorkarting.com](http://www.tolosaindoorkarting.com) atarian.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



# Sentimenduak komunikatzeko asmoz, abian da VI. Aiztondo Gutun Lehiaketa

Apirilaren 26ra bitarte izango da zabalik lanak bidaltzeko epea; sari banaketa, maiatzaren 24an izango da

## Mikel Iraola

Sentimenduak komunikatu eta gutun bidezko literatur generoaren aberastasuna berreskuratzeko helburuarekin, Aiztondo Gutun Lehiaketa antolatatu du seigarren urtez Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak.

Jaiotako etxea txikitzen doazela izango da gutunaren gaia, eta euskaraz idatzi beharko dira. Gehienez, pertsonako bi lan aurkeztu ahal izango dira, beti ere jatorrizkoak eta argitaragabeak baldin badira. Luzerari dagokionez, gutun bakoitzak alde bakoitiko idatzitako bi orri hartuko ditu asko jota.

Epaimahaiak lanen estiloa, kontakizunaren garapena, aurkezpena eta originaltasuna baloratu dituzte puntuaketatik. Idatzitakoak, eskuz zein ordenagailuz aurkeztu ahal izango dira, eta idatzitako kasuan, kaligrafia ere kontutan hartuko da.

Lehiaketa lau mailatan banatu dute adinaren arabera. Lehenengo mailan, sei eta zortzi urte bitarteko umeak hartuko dute parte. B mailan bederatzi eta hamaika



Lehenengo urteko irabazlea, Miren Aburuza, bere gutuna irakurtzen sari banaketa ekitaldian. HITZA

urte bitartekoak; D mailan 12 eta 16 urte bitartekoak; eta azkenik, 17 urtetik gorakoak.

Sariei dagokionez, 550 euro banatuko dituzte, nahiz eta lehen bi mailetak umei ez zaien ordain saririk emango. Horren ordez, lehen eta bigarren sailkatuek diploma eta opari bana jasoko dute. D mailako lehen sailkatuak, diplomaz gain, 100 euro irabaziko ditu, eta bigarrenak, 50 euro. Helduen

mailan, berriz, txapeldunak 250 euroko saria jasoko du, eta 150 txapeldunordeak. Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkilgo herrietako idazlerik hoberenak berriz, afari bat irabaziko du bi lagunentzat Olentzo jatetxean.

## Hilabete baino gutxiago

Parte hartzaileek hilaren amaiera baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak, apirilaren 26rako

hain zuzen. Posta arruntez, zein elektronikoz bidali ahaliko dira lanak.

Posta arruntez bidaltzeko, egilearen datuak (izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea) kartazal itxi batean sartu, eta bertan izenordea jarrita entregatuko dira. Emailez bidaltzen dutenek, gutuna fitxategi batean bidaliko da, izenordearekin eta egilearen datuak «egilea» izena duen beste

## > Oinarriak

### VI. GUTUN LEHIAKETA

- **Gaia.** Jaiotako etxea txikitzen doaz.
- **Mailak.** A. maila: 6-8 urtekoak; B. maila: 9-11 urtekoak; C. maila: 12-16 urtekoak; E. maila: 17 urtetik gorakoak.
- **Lanak.** Argitaragabeak, gehienez bi orrialde eta parte hartzaile bakoitzeko gehienez bi lan aurkeztu ahal dira.
- **Kontuan hartuko dira.** Estiloa, kontatutakoaren garapena, aurkezpena, originaltasuna, eta eskuz idatzitakoetan, kaligrafia.
- **Hizkuntza.** Euskara.
- **Epea.** Apirilaren 26a.
- **Helbidea.** Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea bulegoa; Muñoa Kalea, 36 Behea. 20159 Zizurkil. Posta elektronikoa: [aiztondokogutunak@euskalerria.org](mailto:aiztondokogutunak@euskalerria.org).
- **Sariak.** A. eta B. mailak: diploma eta oparia lehen eta bigarren sailkatuentzat; D. maila: diploma eta 100 euro irabazlearentzat, eta diploma eta 50 euro bigarrenarentzat; E. maila: diploma eta 250 euro txapeldunarentzat, eta diploma eta 150 euro txapeldunordearentzat; Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkilgo hoberenentzat, afari bat bi lagunentzat Olentzo jatetxean.
- **Sari banaketa.** Maiatzaren 24an, Larraulgo kultur etxean.

fitxategi batean. Aurtengo sari banaketa Larraulgo kultur etxean egingo da maiatzaren 24an, 18:00etan, eta han, lan guztiak irakurriko dira.

## > Laburrak

### Tolosaldea Txukun plataformaren bilera, gaur

**ANOETA** > Tolosaldea Txukunek bilera informatiboa egingo du, gaur, 19:00etan, Mikelasagasti aretoan. Anoeta eta Iruran ezarriko duten atez ateko bilketa sistemaren inguruan hitz egingo dute.

### Zabalik da OHZ hobariak eskatzeko epea

**ZIZURKIL** > Ondasun Higiezinaren Gaietako Zergan %50eko hoberia jasotzeko epea zabalik dute familia ugariak. 100.000 euroko balio katastralera arte aplikatuko da, eta interesatuek, nortasun agiria eta familia ugariaren tituluaren kopia, errolda eta elkarbitzite ziurtagiriak, eta 2012ko OHZren ordainagiriaren kopia utzi behar dituzte udal bulegoetan hilaren 12a baino lehen.

## Arropa birtziklatua egiten ikasteko aukera Villabona eta Zizurkil

Datorren astelehenean irekiko da izen-emate epea eta apirilaren 30an amaituko da; ikastaroa, maiatzaren izango da

### M. Iraola

Arropa birtziklatua egiten ikasteko ikastaroa antolatuko dute Villabona eta Zizurkilgo udalek datorren hilabeterako. Tytti Thusberg-en eskutik, arropa zaharrak hartu eta birmoldatzen ikasiko dute parte hartzaileek.

Ikastaroa maiatzaren izango bada ere, datorren astelehenean, hilaren zortzitik, aurrera, izen emateko epea zabalik izango da, apirilaren 30era bitarte. Ikastaroa berriz, maiatzaren 6tik 24ra

## > Datuak

### IKASTAROA

- **Non.** Villabona eta Zizurkil.
- **Izen-ematea.** Apirilaren 8tik 30era bitarte.
- **Ikastaroa.** Maiatzaren 6tik 24ra bitarte.
- **Ordutegia.** 17:00-20:00.
- **Prezioa.** Herritarrek 65 euro eta gainontzekoek 80 euro.

bitartean burutuko da arratsaldeko ordutegian. Bostetan hasiko dira klaseak, eta zortzietan amaitu.

Ikastaroaren prezioa 65 eurokoa izango da Villabonako eta Zizurkilgo herritarrentzat. Gainontzekoek, 80 euro ordaindu beharko dituzte izen-emateagatik.

**Mauka berria**

Izena eman orain Maukan, eta irabazi bi pertsonarentzako egonaldia Urdaibai Biosfera Erreserbatuan, Aristieta baserrian!

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu)

**ARISTIEA BASERRIA**

Eman izena apirilaren 7a baino lehen

# Iker Karrera herritarraren hitzaldiarekin hasiko da Amezketako Mendi Astea

Apirilaren 8tik 14ra mendiaz gozatzeko aukera egongo da Buruntzun Mendi Elkartearen eskutik

Asier Imaz Amezketak

Iker Karrera amezketarraren hitzaldiarekin hasiko da Buruntzun Mendi Elkartearen Mendi Astea 2013. Apirilaren 8tik 14ra, mendia ardatz duen ekimen bat egongo da egunero Amezketan, egitarau oparoaren isla. Hitzaldi eta emanaldiak kultur etxean izango dira, eta jakiekin loturikoak Zazpi Itturri Elkartearen Mendi Asteari amaiera, nola ez, lau ordu inguruko mendi itzuli batekin emango diote. Igandeko irteera oraindik zehaztu gabe duten arren, Txindoki inguruak ez dituzte urruti izango. Ondoren, ospakizunei agur esateko, hamaiketako egingo dute Zazpi Itturri elkartearen.

Mendiarekin lotura zuzena duten ekimenez gain, larunbatean, hilaren 13an, *Ez gara Palestinaz ari* bertso antzerki emanaldia ikusteko aukera egongo da Amezketako kultur etxean. Unai Muñoz eta Ander Lizarralde bertso-lariak dira ikuskizun horren protagonistak.



Iker Karrera mendiar buruzko bizipenak kontatuko ditu Amezketan. HITZA

## ↓ Egitaraua

### APIRILAK 8, ASTELEHENA

■ 20:00. Iker Karrera Amezketako mendi korrikalariaren hitzaldia.

### APIRILAK 9, ASTEARTEA

■ 20:00. Luis Sagastumeren eskutik, *Atlas 2013*-ri buruzko hitzaldia.

### APIRILAK 10, ASTEAZKENA

■ 20:00. Jon Goikoetxea *Boliren* hitzaldia. Gaia, *Ama Dablam mendia* izango da eta bertako bizipenak kontatuko ditu ibartarrak.

### APIRILAK 11, OSTEGUNA

■ 20:00. Asier Izagirrekin Partagorian zehar.

### APIRILAK 12, OSTIRALA

■ 20:00. Afaia Zazpi Itturri elkartearen, Nikok alaituta.

### APIRILAK 13, LARUNBATA

■ 19:00. *Ez gara Palestinaz ari* emanaldia.

### APIRILAK 14, IGANDEA

■ 08:00. Plazatik abiatuta mendi ibilaldia.



Xabier Lopez Peñaren heriotza salatzeko Herrira-ren kartelak. HITZA

# Bilbon etzi egingo den manifestaziora joatea eskatu dute

Tolosaldeko Herrira-k autobusak antolatu ditu; Xabier Lopez Peñaren heriotza salatuko dute

A. Imaz

Xabier Lopez Peña euskal presoaren heriotza salatzeke, eta berriro gerta ez dadin eskatzeko, apirilaren 6an manifestazio nazionala deitu du Herrira-k. Mugimenduen Tolosaldeko ordezkariek herritar guztiak mobilizazioan parte hartzea deitu dituzte. Bilbora joateko autobusak jarriko dituzte eskualdean, eta izena ohiko lekuetan eman behar dela azaldu dute Tolosaldeko Herrira-tik. Alegian, adibidez, 15:15ean irtengo da manifestaziora joango den autobusa.

Deialdia egiterako garaian, euskal presoek egun bizi dituzten baldintzak salatuko dituzte Herrira-tik: «Berriro gerta ez dadin. Ez duzu heriotza eta sufrimendurik nahi, konponbidea eta bakea erakitzeke garaia da. Zentzu horretan, espetxe politika oztoko nabaria da eta horren erakusle dira Lopez Peña eta Figueroaren heriotzak, larri gaixo dauden presoaren egoera, 197/2006 doktrina,

sakabanaketak eragindako istripuak edo Muret, Sevilla eta Puerto III-ko espetxeetan euskal presoek pairatutako jipoiak».

Mobilizaziora joateko eskatzeaz gain, Xabier Lopez Peñarekin gertatutakoa argitu eta «indarrean dauden salbuespen neurriak» etetea ezinbestekoa dela azaldu dute Herrira-tik.

Helburu horrekin, larunbateko manifestazioaz gain, beste hainbat ekimen antolatu dituzte Herrira-tik, Euskal Herrian barrera. Eskualdetik kanpo izan arren, «ahal duenari bertara agertzeke» eskatu diote Tolosaldeko ordezkariek: «Gaur, 12:00etan, elkarretaratzea egingo da Frantziak Bilbon duen kontsulatuaren aurrean. Bihar, elkarretaratzeak Basauri, Galdakao, Bilbo, Gasteiz, Donostia, Iruñea, Donibane Garazi, Baiona, Donibane Lohitzune, Maule eta Hasparnen egingo dira».

### Azken ostiraleko datuak

Hileko azken ostiralean, euskal preso eta iheslarien alde elkarretaratzeak egin ziren eskualdeko herrietan. Herrirak parte hartzearen datuak zabaldu ditu: «Alegian, 14 lagun; Leaburu-Txaraman, 16; Tolosan, 50; Zizurkilan, 36; Anoetan, 27; Ibarren, 35; Berastegin, 26 eta Gaztelun, 11».

# Ibilgailuak ezingo dira erabili Rallyesprintak irauten duen bitartean

Amezketako Udalak hainbat ohar zabaldu ditu herritarren artean, VI. Ñañarri Rallyesprintaren harira

A. Imaz Amezketak

VI. Ñañarri Rallyesprinta apirilaren 20an korrituko da, eta Amezketako Udalak herritarrei hainbat mezu zabaldu dizkie, auto lasterketaren harira: «Rallyak Alegian izango du irteera, eta helmuga, Amezketan. Hori dela eta, Alegiatik Orendainerako eta Abaltzisketarako GI-3670 eta Amezketatik Abaltzisketarako GI-2133 errepideak ibilgailuentzat moztu egingo dira, 14:00etatik proba amaitu arte, gutxi gora

behera, 19:00ak aldera arte. Segurtasun neurriak direla eta, derigorrezkoa da».

Egun horretan, ordu tarte horretan, eta errepide zati horietan, ibilgailurik ezingo dela erabili aipatu dute udaletik. Bestalde, errekonozimendu saioak apirilaren 13an eta apirilaren 14an egingo dira 10:00etatik 20:00etara, eta apirilaren 19an 15:00etatik 20:00etara. Udaletik azaldu duteenez, «errekonozimendu probak ibilgailu normalarekin egiten dira, eta legez ezarrita dagoen abiadura gainditu gabe, hau da, egunero ibili behar den eran. Ohiko egun batean baino trafikoa gehiago nabaritu daiteke egun horietan». Proba egunean larririk diren bat izanez gero, SOS Deiakera, 112 zenbakira deitu behar dela ere azaldu dute.

## → Laburrak

### Jai batzordearen bilera gau egingo dute

**ALEGIA** Jai batzordearen bilera gau egingo dute 19:00etan kultur etxean. Bi astez behin egiten diren bilera horietara, udaleko langileez eta zinegotziez gain, ahalik eta herritar gehien joatea da batzordearen helburua, gero eta jende gehiagorekin ideia berriak sortuko direlako eta horrek egitarau erakargarriago bat egitea ahalbidetuko duelako.

### 'Zaintza genero ikuspegitik' ikastaroa

**GIZARTEA** Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak *Zaintza genero ikuspegitik* ikastaroa antolatu du Albizturko eta Bidegoiango herritarrentzat. Izena emateko, mankomunitatearekin jarri behar da harremanetan, hilaren 10a baino lehen.

Mauka **GAURKO ESKAINTZA**

Paco Ibañezen kontzertua Kursaal

A. M. KULTUR PROMOTORA  
Herriko Auzoa, 21 - 3  
DONOSTIA 20005 - GIPUZKOA  
Tel. 919-421-152

Prezioa **15€**

www.mauka.eu **berria**

# Tourette sindromea ezagutzera emateko bazkaria antolatu dute

Gaixotasun ez ohikoa da Tourette sindromea; bazkaria Usabal kirolegian egingo dute, hilaren 13an

**Eneritz Maiz**

Tourette sindromea gaixotasun ez ohikoen barruan sartua du FEDER Espainiako gaixotasun ez ohikoen federazioak. Pertsona eta familia gutxiri eragiten die, baina Tourette sindromea eta antzeko nahasteak dituzten familien EAEko Afesta elkartearentzat ezinbestekoa da ezagutzera ematea. Hilaren 13an, bazkaria egingo dute Tolosako Usabal kirolegian, eta edonork lagundu dezake ekimena bazkarira joanez, kamisetak erosiz edota diru ekarpena eginez.

Kaltetutako hiru familiak sortu zuten irabazi asmorik gabeko elkarte, eta gaixotasun ezezagun honek sortzen duen larritasunaren aurrean informazioa, aholkularitza eta laguntza puntua sortzea dute helburu. Lehen



Bazkariak gain, kamisetak egin dituzte dirua biltzeko; 10 eurotan jarri dituzte salgai. HITZA

pausoak ari dira ematen, baina diru laguntza urriak diren garai hauetan, dirua behar dute terapia eta fisioterapiarako. Madrilen egingo diren jardunaldietan ere parte hartuko dute elkarte kideek. Gaixotasunaren inguruko informazioa nahi izanez gero, [www.facebook.com/TouretteEuskadi](http://www.facebook.com/TouretteEuskadi) orrialdean sartuz edo [afesta@gmail.com](mailto:afesta@gmail.com) helbide elektronikora idatziz eskuratu daiteke.

## ↓ Elkartasun bazkaria

### APIRILAK 13, LARUNBATA

■ **13:30.** Tourette sindromea dutenen aldeko bazkaria egingo dute Usabal kirolegian.

■ **Prezioa.** Helduek 18 euro eta haurrek 10 euro ordaindu beharko dute. Ateratzen den dirua, Tourette sindromea duten fa-

milien Euskadiko Afesta elkartearentzat izango da.

■ **Izen ematea.** Izena emateko azken eguna, hilaren 10a, asteazkena izango da. 667781866 (Eli) telefono zenbakira deituta.

■ **Diruz laguntzeko.** 2095506711064308579 Kutxabank-eko kontu korronte zenbaki bidez.

**Eli Agirretxe** • Afesta elkarte kidea

## «Gizarteak gaixotasuna ezagutzuz gero, errazagoa litzateke aurrera egitea»

**E. Maiz**

Eli Agirretxe tolosarrak beste bi familia kalteturekin batera sortu zuen Afesta elkarte. Duela urtebete hasi ziren elkarlanean, eta dagoeneko Tourette sindromea duten zortzi familia batzen ditu. Gaixotasuna bera, eta elkarte ezagutzera eman nahi dituzte.

**Urtebete pasa da elkarte sortu zenuenetik. Zertan ari zarete gaur egun?**

Batik bat azken aldiari hasi gara lan gehiago egiten, eta ezagutze-

ra ematen. Elkartearen helburu garrantzitsuenetarikoa bat Tourette sindromea ezagutzera ematea da. Sozialki eragin handi du, eta gizarteak gaixotasunaren berri izanez gero, bizitzan aurrera egitea errazagoa izango litzateke.

### Zer da Tourette sindromea?

Gaixo bakoitza aztertu beharko litzateke. Tik simple edo konplexuak izan daitezke. Gaitz neurologikoa da eta garrasika, hitz zarrak esaten edo ukitzen hasten dira. Ohiko bizimodua egiten baidute ere, egoera batzuen aurrean

arreta falta, jarrera arazoak edota hiperaktibitatea dituzte. Ez dio adimenari eragiten.

### Elkartearen egoitza Tolosan duzue.

Bai, Emeterio Arresen dugu eta elkarte Euskadi mailakoa da. Tourette sindromea duen zazpi urteko semea dut, eta udaletxera joan eta lokal bat utzi ziguten. Hileroko elkarten gara bertan.

### Zertan ari zarete?

Esku orriak eginak ditugu, eta anbulatorio eta ikastetxeetan zabalitzen hasi gara. Era berean, familiak babesa emateko psikomo-

trizista batekin haurrentzako terapiak egiten hasita gaude. Taldeka egiten dugu zortzi familien artean, eta lau haur eta lau heldu elkarten gara. Gainera, psikologo batekin harremanetan gaude erlaxazio bidez familia terapia lantzen hasteko. Beharrak aztertuko ditugu, eta oso garrantzitsua da terapia psikologikoa edukitzea. Batzuetan medikazioa beharrezkoa da, baina oso indartsuak dira eta alternatibak ere bilatu nahi ditugu. Horretarako, ordea, dirua behar dugu.

## Hastapeneko klown ikastaro trinkoan izena emateko aukera zabalik dago

Hilaren 6an eta 7an izango da ikastaroa, Tolosako Amarotz auzo etxean; May Gorostiaga izango da irakaslea

**E. Maiz**

Intujai Teatro taldeak *Non utzi nuen nire klowna?* ikastaroa antolatu du hilaren 6 eta 7rako. Hastapeneko klown ikastaroa izango da, eta edonork eman dezake izena. May Gorostiaga izango da irakaslea.

Hamabi orduko ikastaroa izango da, eta 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara izango du ordutegia. Amarotzeko auzo etxean izango da ikastaroa, eta 70 euro ordaindu beharko da. Izena emateko, [intujai@intujai.net](mailto:intujai@intujai.net) helbide elektronikora idatziz edo 647201401 telefono zenbakira deituz eman daiteke.

## Maiatzak 20 elkarteak Elkartasun Azoka jarri du, Tolosan

**E. Maiz**

Maiatzak 20 elkarteak, azken urteetan egin moduan, Elkartasun Azoka antolatuko du bere proiektu aurrera ateratzeko. Finantza zioa lortzea dute helburu, eta Tolosako kultur etxean jarri dute azoka. Hilaren 7ra, igandea, bitartean izango da.

Atzo zabaldu zituen ateak, eta helburua *Oporrak bakean* proiektuaren barruan haur talde bat harerren hartzea izango da. Elkarte kideek herritar guztiei bertatik pasatzeko eskatu diete.

Sartu gure webguneetan  
[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Jarraitu albisteak  
Twitter bidez  
[@hitzatolosaldea](https://twitter.com/hitzatolosaldea)

hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"



# «Langileen itxaropenarekin jolastu nahi dute euren helburua lortzeko»

Enpresak ez duela «adostasunerako inolako borondaterik» diote Huyck Wangner lantegiko beharginek

**Iñigo Terradillos** Zizurkil

Huyck Wangner metalgintzako konpainiaren eta Zizurkilgo langile batzordearen arteko negoziazioetan ez dago akordiorako bidea irekitzen duen aldaketarik. Perot zenaren 73 langile kalera-tzeko bigarren dosierra aurkeztu zuenetik bigarren bilera zuten atzokoa, legeak arautzen duen negoziazio epearen barruan, eta langileek adierazi dutenaren arabera, «enpresak ez du adostasunerako inolako borondaterik erakutsi, ez baitago aldaketa sakonik euren planteamenduan».

Mikel Zabaleta ELA sindikatu-ko ordezkariek azaldu moduan, Zizurkilgo lantegiaren bideragarritasunaz hitz egitea zen atzoko bilerearen xedea. Hala, konpainiak lantegia ixteko «arrazoi ob-



Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko atarian hilerri bat irudikatu dute langileek. XABIER MARTIN/BERRIA

jektiboak» dituela dioen bitartean, langileek «arrazoi subjektiboak» dituztela diote, «zenbakiei begiratuta konpainiak Europan dauden lau lantegietatik zenbakirik txukunenak dituena Zizurkilgoa baita».

Bestalde, enpresak Italian eta Austrian dituen plantetan Zizurkilgo 13 langilerentzako lanpostuak dituela, eta lan poltsa ere aipatu du. Horren aurrean, lehen

ere 8 langilerentzat gauza bera eskaini zutela, eta orain 13ra igo dutela azaldu du Zabaletak. «Zizurkilgo lantegia bideragarria bada, ez dute inor Austriara bidali beharrik, eta gutxiago gainerakoak kalean utzita». Era berean, enpresak lan poltsa aipatzen duenean, mundu mailakoa dela ez duela azaldu gaineratu du Zabaletak: «Urte bateko epean lanposturen bat sortuko balitz, esaterako Ja-

ponen edota Kanadan, hara joateko aukera emango diotela langileei adierazi dute». Bada, ez bata ez bestea ez zaizkio langile batzordeari irtenbidea iruditzen.

Mikel Zabaletak adierazi duenez, «horrelako proposamenekin langileei iseka egiten diete, eta benetako borondaterik balego lantegia irekita edukitzea guztiz posible litzateke». Alde horretatik, enpresak langileekin duen jarre-

ra salatu dute: «Enpresak Enplegu Erregulazio Espedientea erretiratu behar zuela prentsaren bidez jakin genuen, eta baita bigarren espedientea jarri behar zuela ere; jendearen itxaropenarekin jolastu nahi dute euren helburua lortzeko».

Amore ematetik urrun, mobilizazioekin jarraitzeko «asmo irrimoa» hartua dute langileek «orain arte eskaintzen dutenarekin ez baitago ezer galtzeko». Larunbatean Tolosako Trianguloan elkarretaratzera deitu dute, 11:00etan, Euskal Herriko Itzulian aldarrikapena egingo dute, eta hilaren 11n Gipuzkoako Batzar Nagusietan izango dira ageraldia egiteko.

## Hurrengo bilera

Bestalde, bigarren espedientearen barruan egingo duten hirugarren bilera hilaren 12an izango da, 12:00etan, Donostiako Precon, sindikatu eta enpresaburu konfederazioen arteko elkarrizketa eta topaketa gunean. Langile batzordeak adierazi duenez, aurreko bilera ere bertan egitea eskatu zuen, baina enpresak ez zuen onartu, eta Donostiako hoteletan egin ziren. Atzoko bilera egiten ari zirela protestetan tentsioa «areagotu» egin zen, eta ondorioz, bertan behera utzi beharra izan zuten bilera.

# 44 milioi euroko isuna papergintzako 15 lantegiri

Tolosaldekoak diren edo bertan ordezkaritza duten Antalis, SAM, Izalbe eta Unipapel daude tartean

**I. Terradillos**

Espainiako Kompetentziaren Batzorde Nazionalak 44 milioi euroko isuna jarri die papergintza alorreko hamabost lantegiri, Kompetentziaren Babeserako Legea hautsi izana egotzita. Lantegi horien artean lau Tolosaldekoak dira, edota eskualdean ordezkaritza

dituzte: Albizturiko Antalis, Tolosako SAM, Ibarra Sobres Izalbe eta Adunako Unipapel.

Kompetentziaren Batzordeak frogatutzat eman du 1977tik 2010era bitarteko epean aipaturiko laurek eta beste 11 enpresek «paperezko gutunazalen Espainiako merkatuaren banaketan» hartu zutela parte. Batzordeak adierazi duenaren arabera, «kompetentziaren aurkako ekintzak» burutu dituzten hamabost enpresek akordioak zituzten euren artean «bai prezioak zehaztean, bai eta merkatuaren banaketari dagokionean ere, paperezko gutunazalen lizitazioan Espainiako

administrazioak nahiz hainbat autonomiatako administrazioek deituriko hauteskunderarako». Halaber, akordio horrek alderdi politikoen hautes-gutunen ekoizpenaren banaketa ere jasotzen zuen.

Bestalde, inprimatu aurreko gutunazalen merkatuaren ekoizpenaren banaketarako akordioak ere bazituztela dio Kompetentziaren Batzordeak. Merkatu horren barruan sartzen ziren «Espainiako 223 enpresa publiko nahiz pribatu», eta 1990 eta 2010 urte bitartean burutu zela dio batzordeak. Era berean, 1994 urtetik 2010era bitarte, gutunazal zurien prezio-

ak zehaztu eta bezeroak banatzeko akordioa zutela dio, eta baita paperezko gutunazalen merkatuaren garapen teknikoak mugatuzeko ere. Azken akordio honen ondotik partzuergo teknologiko bat sortu zen, eta honek Cover Formas sozietatea sortu zuen 1997an. Antza, akordioak zituzten enpresen artean berrikuntza teknologikoak elkarbanatzea zuen helburua. Batzordeak dioenez, «1977an sortu zen akordioa, Espainiako lehendabiziko hauteskunde demokratikoekin batera».

Isunei dagokienez, Albizturren ordezkaritza duen Antalis lante-

giari ia 8 milioi (7.826.650) euroko isuna jarri dio Espainiako Kompetentziaren Batzordeak; Tolosako SAM lantegiaren jabe den Printeos enpresari 2,4 milioi (2.392.580) eurokoa; Ibarra Sobres Izalbe lantegiari 51.818 euro; eta Adunan ordezkaritza duen Unipapel enpresari 20 milioi (20.498.246) eurokoa. Bestalde, batzordeak jakinarazi duenez, Unipapel enpresa isuna ordaintzetik aske utzi du «ikerketan ahalbidetzen lagundu izanagatik», eta Antalis eta SAM enpresei isunaren %40 eta %30eko murriztapena egin die, «informazio esanguratsua» eman izanagatik.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarritako Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	5°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibaraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

■ **Alegia.** Indarrean dagoen espetxe politikaren ondorio latzak salatzeke Herriak manifestazioa deitu du larunbatean, Bilbon. Alegian autobusa antolatuta dute, izena ohiko lekuetan eman behar da. Autobusa 15:15ean aterako da.

■ **Ibarra.** Kiki, Koko eta Moko pailazoen *Natura gara* emanaldia izango da, 17:00etan, Benito Izagirre kultur etxean.

■ **Tolosa.** Tolosako Foro Errepublikarrak herri bazkaria antolatu du hilaren 14rako. Bazkaria Zerkausian izango da, 14:15ean. Interesatuek izena eman dezakete 22 euro Kutxako 2095 5081 93 1074768150 kontu korronte zerbakiari sartuta. Izena eta abizena zehaztu beharko dira.

■ **Tolosa.** Tolosako Udalak, sanjoanek iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatu du. Maiatzaren 17a dan lanak aurkezteko azken eguna. Kartelean, *Sanjoanek 2013 / Tolosa, ekainak 21-25* agertu beharko da. Lanak kultur etxean aurkeztu beharko dira.

■ **Tolosa.** Kilometroak 2013ko Ikasle Batzordeak Ahora! bideo lehiaketa antolatu du. Gehienez bost minutuko edozein bideo egin daiteke Ahora! leloa gai gisa hartuta. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 10a da.

■ **Tolosa.** Gaur, hilak 4, Pelukeria tailerra izango da Gazte Topagunean.

#### IKASTAROAK

■ **Aduna.** Urmeentzako zirko ikastaroa izango da gaur, Adunako Asvinenean. Telak, trapezioa, jolasak eta akrobazia lan-

duko dituzte. Virginia Maffassanti irakaslearekin ariko dira 11:00etatik 12:45era. Informazio gehiagorako, 689 79 24 69 telefonora dei daiteke.

■ **Tolosa.** Hastapeneko clown ikastaro trinkoa izango da hilaren 6 eta 7an, Amartz auzo elkartearen 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara izango da. 70 euro ordaindu beharko da, eta izena *intujai@intujai.net* helbide elektronikora idatziz edo 647 201 401 telefono zenbakira deituz eman daiteke.

#### ZINEMA

■ **Tolosa.** Tabu filma ikusteko aukera izango da, gaur, Leidor zineman. 19:15ean eta 21:15ean eskainiko dute.

#### ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Topic Zentroan Txotxongillo taldearen erakusketa dago. Enkarni Genua eta Manolo Gomezen erakusketa da, eta 80 txotxongilok osatzen dute.

■ **Tolosa.** Lanbroa tabernan, Xegunda Iztuetaren buztinezko arte lanak daude.

■ **Alegia.** Erretirodunen tabernan, Jaoni Alkortaren margolanak daude.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarreren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Irudia Tolosa



## PASEALEKUA ZABALDU EGINGO DUTE

Martxoaren hasieran hasi zituzten Tolosako Bera-zubi estadioa berritzeko lanak. Proiektua lau faseetan dago banatuta, eta lehenarekin hasi dira: Sarrera, aldagelak, tribuna, gimnasioa eta padeleko bi pistak egitea izango da. Ur agentziak jarritako baldintzei erantzunez, ordea, estadioa ingurartzen duen harresia bota egin beharko dute. On-

dorioz, gaur egungo pasealekua zabaldu egingo dute ia biderkatuz. Udalak ibilbidearen erabilera sustatuko du, eta gune irekiagoa, erosoagoa eta argiagoa bilakatuko du. Gainera, Ur agentziak eskatuta, gaur egungo igerilekua kentzera behartu dituzte. Dena den, laugarren fasean igerileku berria egin edo ez aztertuko da. I. URKIZU

## Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)